

Bezeroarekiko Harremanak

Jakina den bezala, aplikazio bat zabaltzerakoan, honek haien bezeroekin duen harremana nolakoa izango den finkatzea prozesuko atalik garrantzitsuenetakoa bat da, izan ere, hauek izango dira gure aplikazioak arrakasta izango duen edo ez iragarriko dutenak, aplikazioak bezerorik ez badu ez du funtzionatuko eta ez da arrakastatsua izango. Horregatik garrantzia handia emango diogu gure aplikazioak haren erabiltzaileekin sortzen duen harremanari.

Gure aplikazioa zuzentzen diegun segmentuei ahalik eta baliabide gehien eskainiko diegu gurekin, hau da aplikazioko sustatzaileekin, harreman ona izan dezaten.



Alde batetik gure aplikazioak haren bezeroekin sortuko duen harremana konfiantza eta fidagarritasunean oinarritzen den harreman bat da. Momentuoro emango dizkiegu gure bezeroei konfiantza eta leialtasun hori hainbat modutan: alde batetik haien zalantza eta arazo guztiak konpontzeko prest egongo gara, haiek gure aplikazioaren bidez lortutako diru guztia modu seguru batean zirkulatuko duela ziurtatuko diegu...

Gure harremanak ezartzeak ez du aparteko kosturik edukiko, izan ere ez ditugu hasiera batean bezeroak gure aplikazioan mantentzeko kanpainarik edo antzerako gauzarik egingo, aplikazioa merkatura ateratzeko momentuan soilik erabiliko dugu diru apur bat publizitatean aplikazioa zabaltzeko.

Aurretik esan bezala gure aplikazioak bezeroak eskuratzeko hasiera batean soilik erabiliko luke dirua (publizitatean). Alde batetik ahoz aho transmititzen saiatuko gara gu geu, beste alde batetik hitzaldiak egingo ditugu aplikazioa azaltzeko interesatuak dauden sektoreei eta azkenik propaganda apur bat egingo genuke, hau izango litzake dirua gastatu beharko genukeen atal bakarra.



Azkenik gure bezeroak fidelizatzeko momentuoro aurretik esan bezala haien arazoak konpontzen saiatuko ginateke. horrez gain harreman batean jardungo dugu haiekin elkarlanean.

Horrez gain, gure aplikazioko bezero zaharrenek ere abantailak edukiko dituzte gure aplikazioan. Haventzat hilabetero bi klaseren dirua sustatzaileek jarriko dute eta irakasleari guk geuk emango diogu klaseak balio izan duen dirua ikasle zaharrak klaseak doan eduki ditzan.

Hori gutxi balitz, gure ikasturteko erabiltzaile guztien artean zozketa bat antolatuko dugu hiruhilabete bakoitzean. Bertan eskolako materiala zozketatuko dugu, gure aplikazioarekin erlazionatutako materiala delako. Zozketa haven bidez ikasleak gure aplikazioa aukeratzea lortuko genuke beste aplikazioetan antzeko gauzarik egiten ez dutelako.